

# Aretxagazeta

**ETA GAINERA...**

## Ze barri?

ASTEKO GAIA


**Lanpostu bi bete  
gura ditu Udalak /08**

HEZKUNTZA

**Bi titulazio berri  
HUHEZIn /09**

LEINTZ-GATZAGA

**Udalekuetan  
hasteko prest /10**



**EUSKAL PRESOAK  
EUSKAL HERRIRA ASTEA**

**UZTAILAREN 12TIK 18RA BITARTEAN  
ARETXABALETAKO PLATAFORMAK ANTOLATUTA**

**SAHARARRAK: UME BI ETORRI DIRA HERRIRA/4 • KIROLAK: IGOR GUENETXEA/6**

**GUARDIAKOFARMAZIA**

**ZAPATUA, 10**  
FRAILE, J. Herriko Plaza 10. .... 943 79 21 99

**DOMEKA, 11**  
FRAILE, J. Herriko Plaza 10. .... 943 79 21 99

**TELEFONO JAKINGARRIAK**

<b>OROKORRAK</b>	
Almen .....	943 71 49 07
ARETXAGAZETA .....	943 79 86 21
Faxa .....	943 77 18 54
Basoko .....	943 77 09 81
Euskaltegia .....	943 79 21 68
Gizarte laguntzailea .....	943 71 18 62
Hezibide elkarteak .....	934 79 31 32
Industriaidea .....	943 79 62 80
Institutua .....	943 79 79 00
Kirol etxea .....	943 71 26 28
Kultura etxea .....	943 71 10 27
Kurtzebarri Eskola .....	943 79 00 49
Kurtzebarri BHI .....	943 79 57 40
KZGunea .....	943 79 94 44
Liburutegia .....	943 71 18 62
Loramendi EE .....	943 77 09 70
Ludoteka .....	943 79 05 81
Mankomunitatea .....	943 79 30 90
Murruxiko ME .....	943 79 93 74
Musika Eskola .....	943 79 36 50
Osasun etxea .....	943 71 19 59
Otalora .....	943 71 24 06
Parrokia (bulegoa) .....	943 79 18 42
Pausoka Haur Eskola .....	943 77 03 77
Postetxea .....	943 79 28 31
Santa Rita Ikastetxea .....	943 79 17 00
Taxi geltokia .....	943 77 12 64
Udal Bulegoak .....	943 71 18 62
Udaltzaingoa .....	943 71 18 63
Urats Gain .....	943 79 99 11

**UDALTAINGOA**  
Arrasate .....

**LARRIALDIK**  
SOS Deiak .....

**MEZAK**

**ANDRA MARIAREN ZERURATZE PARROKIA**  
Domeketan: 11:30  
Zapatuetan: 19:30  
Lanegunetan hiletak: 19:00

**SANTA RITA**  
Domeketan: 09:00  
Lanegunetan: 19:00

**BASERRI AUZOETAN: GOROETA**  
Domekan 11:30ean.

**ARKARAZO**  
Domekan 12:30ean.

**GALARTZA/IZURIETA/GELLAO**  
Ez dute mezarik esango.

**OHARRAK**

**UDA ELKARTEAK BATZAR OROKORRA**

Aretxabaleta Kirol Elkar-teak, UDAk, urteko batzar orokorra egingo du bihar, zapatua, 11:30ean, udaletxe zaharrean. Urteko kontuak aipatuko dituzte, eta zuzendaritza batzorde berriak elkartearen ardura guztiak hartuko ditu.

**SAN KRISTOBAL LARRINON**

San Kristobal eguna ospatuko dute Larrino auzoan bihar, zapatua: 12:00etan meza eta ostean luntxa egingo dituzte.

**OHIKO OSOKO BILKURA**

Astelehenean, uztaillak 12, ohiko osoko bilkura egingo du udalbatzak. 18:30ean izango da, udaletxeko osoko bilkuren aretoan.

**LIBURUTEGIAREN ORDUTEGIA**

Uztaillaren 1etik irailaren 13ra bitartean udako ordutegia izango dute Udal Liburutegian: astelehen, eguazten eta egubakoitze-tan 10:00etatik 13:00etara; martitzen eta eguenetan 10:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 20:00etara. Uztaillaren 31tik abuztuaren 29ra, berriz, itxita egongo da.

**KZGUNEAREN ORDUTEGIA**

Udako ordutegia izango du Aretxabaletako KZGuneak uztaillaren 08:00etatik 16:00etara.

**LORAMENDIREN AGENDA**

**ARGAZKI ZAHARRAK BEHAR DITUZTE EGUTEGIA EGITEKO**  
Datorren urteko Debagune-ko egutegia egiteko argazki zaharrak behar dituzte euskara elkarteek. Aurten elizkizunen gaineko argazkiak batu gura dituzte: ezkontzak, jaunar-tzeak... Norbait uzteko gertu badago Loramendi Eeko txokora ekar ditzala. Argazkiak itzuli egingo dizkiete euren jabeai.

**ORAINDELA 8 URTE ARETXABALETAN**

**Berbari hitzarmenetik kanpo utzi zuten PSE-EE**

Loramendi EEk bultzatutako Berbari hitzarmenaren bigarren batzar orokorra egin zuten 1996ko uztaillaren 4an. Urtebetean lortutako emaitzak positibotzat jo zituzten; hala ere, PSE-EE alderdia hitzarmenetik kanpo uztea erabaki zuten, hartutako konpromisoak betetze-ko borondaterik ez azaltzeagatik.



**BERTAKO BERBAK/ Juan Martin Elexpuru**

*"Apixa"*

Kabia  
— Zozuak asita dare apixagiñan.



**LIBURUTEGIKOTXOKOA**



**BIBLIOPORRAK 2004**  
Udal liburutegia

- Gazteendako liburuak**
- 'Iqbalen historia' / F. D'Adamo
  - 'El perro de los Baskerville' / A.C. Doyle
  - 'Coraline' / N. Gaiman
  - 'El cazador de estrellas' / R. Gomez
  - 'Erotik' / A. Kazabon
  - 'El diario rojo de Carlota' / G. Lienas
  - 'Zugan pentsatuko dut' / G. Llobet
  - 'El diario rojo de Flanagan' / A. Martin
  - 'El fantasma anidó bajo el alero' / E. Pascual
  - 'Aire beltza' / A. F. Paz
  - 'Tximeleta tatuajea' / P. Pullman
  - 'Osaba Bin Floren' / Txiliku

JOSEBA LÓPEZ DE ARMENTIA

**Adi!**

Zorionak! Zorionak! Zorionak! Zorionak! Zorionak! Zorionak! Zorionak! Zorionak! Zorionak! Zorionak!

**EKAINAREN 7tik AURRERA**  
**Zorion agurrak**  
**ASTELEHENEKO**  
**GOIENKARIAN!**

**Goienkaria**  
astelehenean, aste bukaera osoa

**Gainera...**

**Zorion agurrak, SMS bidez!**

Senitarteko, lagun, ezagun edo gustuko duzun neska/mutila bere urtebetetzean zoriondu nahi baduzu, **Asteleheneko Goienkaria-k** beste aukera bat emango dizu: SMSa bidaltzea.

**BEIRALAN**

**KRISTALDEGIA**

**Markoztatze profesionala prezio ezin hobean!**

Herriko plaza 8, behea • Aretxabaleta • 943 79 81 78 / 670 997 274

**ANDRA MARI**  
Aholkularitza

- Fiskala
- Kontablea
- Juridiko/laborala

Andra Mari Auzunea 3  
ARETXABALETA  
Tel. 943 79 29 26

**Aretz**

**taberna**


Markole 5  
Tel.: 943 79 14 67  
ARETXABALETA

**Angelines**  
AUTOZERBITZUA

*Frutan eta txarkuterian espezialitatea*

Mitarte 16 • 943 79 61 42  
ARETXABALETA


## ATREBENTZIAEZPADA/ Noizbait egon zara Iruñako San Fermin jaixetan? Eta aurten fateko asmorik?



**MARTIN ANTZIA**  
Ikasle



**IRATXE ARBULO**  
Ikasle



**AITOR OROBENGOA**  
Ikasle



**ESTHER MATEOS**  
Ikasle



**ASIER GALIANO**  
Ikasle



**UXUE ERAÑA**  
Ikasle

Bai, gurasuekin fan izen naz entzierruek ikusten, baiñe aurten lagunekin fango naz. Egubakoitzien urtengo dou eta ikusiko dou noiz bueltau. Zezenak ikustiaz gain parrandan egingo dogu.

Ez, ez naz inoiz egon eta ez dot uste fango nazenik be, hainbeste jente egoten dan jaixek ez jat gustetan. Entzierruek gustetan jat, baiñe telebistatik jarraiketant dittut.

Ez, ez naz sekule egon eta badauket gogue fateko. Entzierruek telebistatik ikustie gustetan jat, eta noizbait ailegauko naz bertara. Jente asko egoten da, baiñe mereziko dau.

Igez egon nintzen leleno aldiz lagunekin eta ez jaten bape gustau. Jente larrei euen, eta gabe guztixen ezin izen nintzen taberna baten be sartu. Hortaz, aurten ez noie, ezta pentsau be.

Bai oin pare bat urte gurasuekin egonda nau entzierruek ikusten. Aurten lagunekin fateko asmue dauket, eta gabez biziko dittugu jaixek. Jente asko egoten da, baiñe giro ona.

Ez naz sekule egon eta aurten be ezingo dot. Astien zihher fan gure nauen, aste bukaeran jente asko egoten dalako, baiñe Udaleku Irekietan ordezkapen lanak egitten nabil, eta ezin.

### TXALOAKETATXISTUAK



**TXISTUAK ERABILITAKO OLIOA BEHAR EZ DENEAN** Sukaldean erabilitako olio batzeko ahalegina egitea ondo dago, baina olio hori behar den momentuan eta lekuan utzi behar da. Hileko azken astelehenean egoten da puntu berdeko kamioia gure herriko azokan, eta ez beste momentu baten. Kamioia ez badago, gainera, ezin dira olio ontziak lurrean utzi norbaitek jasoko dituelakoan. / M.A.

### ETABARRUAN...

ASTEAN BEHIN /04

#### Saharako umeak gurean

Saharatik etorritako ume bi daude gure herriko familiekin. Hilabete bi pasatuko dituzte.

ASTEAN BEHIN /05

#### Euskal presoan aldeko astea

Astelehenean hasita euskal presoan aldeko astea antolatuko du EPEH Aretxabale-tako plataformak.

KIROLAK /06

#### Igor Guenetxea auto gidaria

Eskoriatzan zapatuan egin zuten 4x4 trial proban garaile izan zen Arkarazoko Igor Guenetxea.

### ASTEKODATUA

4

#### KARTEL AURKEZTU DITUZTE ANDRAMAIXAK IRAGARTZEKO

Aurtengo Andramaixak iragarriko dituen kartelaren berri laster izango dugu. 4 aurkeztu dituzte lehiaketara eta aste honetan bertan erabakiko dute zein izango den egitarauan agertuko dena.

### BESTEKEESANA

“

Funtzio publiko gehienek gaztelera erabiltzera behartzen gaituzte, gure hezkuntza

eskubideak sistematikoki urratzen dituztelarik. Herri ekimen honen abiapuntua ondorengo zen: **Bergarako epaitegian lanean diharduten lau epaile eta 25 funtzionarioetatik %100 eta %68 erdaldunak direla, hau da, euren eguneroko jarduerak euskaraz egiteko ezintasuna zutela eta beraz euskaldunon hizkuntz eskubideak bazterturik zeudela.**

**Bestalde, justizi administrazioa euskalduntzeko oinarriko sei puntu jotzen ditugu beharrezko; horien artean euskararen ofizialtasuna, funtzio publikoan euskararen derrigorrezkotasuna eta behin behineko neurriak bermatzea.**

**IRATI PAGOAGA**  
Arrasate Irratia/04-07-07

### HERRITARRENBERBAK/ Resu Abasolo



*Ospakizunetan ere parekotasuna*

**G**utariko askorentzat udak ekimen askoren amaiera ekarri du: ikasleen ikasturteak, ohiko kirol txapelketak... eta ondorioz ospakizunak: afariak, bazkariak, dominak, agintarien eskerrak, komunikabideetan agerpenak...

Jakina, hainbeste ahalegin egin ondoren zer gutxiago? Baina guztiontzat parekoak, ezta?

Athleticeko futbol taldeko neskek LIGA irabazi duten arren ez dute Bilbo zeharkatu GABARRAN, zaletu guztiei eta komunikabideei denak ikusteko eta ezagutzeko aukera emanaz. Gizonezkoek irabazi zuten egindako ospakizuna eta hau ez dira parean egon. Jakina ospatu dutela, baina ezkurtuan: aldageletan, etxean, hurbileko lagunekin eta futbolaz gain dituzten lanpostuetako lankideekin izuri dituzte emozioen malkoak, zorion besarkadak jaso, egundoko saltoak bota, jasotako laguntzak eskertu, zorionak abestu...

Ez dute protestatu. Izan ere, gizarte honetan oso barneratuta

daukagu emakumeok ez garelako pilotarabiltzen den kiroletarako heziak, aerobicerako, baizik.

Futbol zelai onenak, belarrezkoak, partiduak jokatzeko zale-tuentzako ordutegi erosoan gizonzkoentzako lehenetsia dute. Hauei jendaurrean agertzeko eskubidea aitortzen diegun bitartean emakumeon ekintzak nagusiki leku itxietara mugatzen ditugu emakumeoi ez balitzaiguke egokituko bezala espazio publiko hori.

**“Karga hau ez da genetiko, heziketarena baizik”**

Karga hau ez da genetiko, heziketarena baizik. Auozan futboleko jokatzeko duen gizonzkoak prestigio soziala duen bitartean Athleticeko LIGA irabazi dutenen izenak ez ditugu ezagutzen, ETBn ez dute iragarkirik protagonizatzen eta ez dute mila milioikorik mugitzen.

Gizarte aurrerakoiak guztion eskubideen alde egiteaz gain parekotasunaren alde egin behar du, baina ez ahaztu gizarteak ez duela ezartzen araurik geuk baizik: gizonok eta emakumeok. Jar dezagun gure begirada ildo honetatik ari direnengan baditugu adibideak eta. Askok aberastuko gaitu.

**Aretxagazeta**

Durana 11  
20550 ARETXABALETA  
Tel.: 943 79 86 21  
Faxa: 943 77 18 54  
Posta-e: aretxagazeta@goiena.com

ZUZENDARIA  
Mirari Altube

ERREDAKZIOA  
Mirari Altube  
Zuriñe Velez de Mendizabal

MAKETAZIOA  
Alex Azkarate

PUBLIZITATEA  
Ziortza Martin

ZUZENTZAILEA  
Sergio Azkarate

LEGE-GORDAILUA  
55-378-94

ISSN  
1134-2609

TIRADA  
2.700 ale

ARETXAGAZETA / ZE BARRI? • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurlaritzako  
Kultura Saila



Gipuzkoako  
Foru Aldundia



Aretxabaleta  
Udala



Eskoriatzako  
Udala



Leintz Gatzagako  
Udala



BESTEAKBESTE

M. J. Aretxaga

## Jolasak eta filmak

Aurrera doie uztaile, eta astien egualdi eskaxa egin baduzku be koloretxue hartzen hasitte gaz gehixenok. Uztaile hil aspergarrixue dala pentsetan badau baten batek, abuztuei zain egongo dielako asko, oso oker dabil. Datorren astien pelikula edo film emanaldixek eukiko dittugu Herriko plazan. Kultura Saillek antolatu dittu uztaile eta abuztureko, eta ez dakit danon gustuko pelikulak egongo dien, baiñe egualdi onakin edarto egongo gara plazan jarritte.

Bestetik jolas ikastarue antolatu daue. *Atera barruan daukazun haurra* izena jarri dutzie, eta ez dauko bape itxura txarra. Egualdi ona eginez gero, gaiñera, Ojala Zelain egingo dittue jolas saiukok. Hortaz, banoie lehenbailehen izena emutera Azkena tabernara.

Jolasien gustora dabitzenak umiek die. Astelehenien hasi zien Udaleku Irekietan, eta danetik egitteko astixe euki daue: eskulanak, jolasak, zezenen aurrien ibilli... Eta ondiokan beste aste bi geraketan jake. Sahararik etorritteko ume bixek be gustora dabitzela entzun dot. Hori merittue, zortzi urtekin etxetik urten eta pasaizu hille bi etxeko iñor barik... Ia uda dana ondo ondo pasetan dauien eta bueltetako gogoz doiezen.

ELKARTASUNA/ Lehenengo aldiz hartu dituzte Aretxabaletako familiek Sahararik etorritako umeak

# Sahararik etorritako bi umek aretxabaletarren artean pasatuko dituzte aurtengo oporrak

MIRARI ALTUBE

Joan zen zapatuan etorri ziren Saharako ume bi udako oporrak gure artean pasatzeko. Lehenengo aldiz etorri dira Aretxabaletara Sahararik, baina ez dute arazorik izan lagunak egiteko. Zortzi urte dituzten Mohamed eta Diha Udaleku Irekietan dabilta egunotan.

Uztailearen 3an etorri ziren Saharako 14 ume ibarrera. 12 Arrasaten geratu dira, eta bi Aretxabaletan daude. Hilabete bi pasatuko dituzte gure artean.

### OSO GUSTURA GUREAN

Mohamed Arbi, zortzi urteko mutikoa, Mario Unanue eta Urri Urizarren etxera etorri da. Lehenengo aldiz atera da Aljerian dagoen kanpamentutik, baina oso ondo moldatu da gurera: "Beste senide batzuk Espainiako hainbat lekutara joan dira, eta lehenengo egunetan telefonoz deitu genien Mohamed lasaiago gera zedin", dio Urrik. Hasani hizkuntza egiten dute berba sahararrek, eta 8 urtetik aurrera gaztelera ikasten hasten dira. Hala ere, ez dute inolako arazorik elkar ulertzeko.

Diha neskatoa ere oso ondo moldatu da gurera, baina gaine-



Astebetean lagun asko egin dituzte Mohamedek eta Dihak Udaleku Irekietan, eta oso gustura dabilta.

an egon behar dutela diote Asier Barrainkuak eta Nuria Agirrek, "Dena ikusi nahi du, dena ukitu, dastatu, usaindu..., eta gainean egon behar dugu zer dagoen ondo eta zer ez esateko". Osasun egoera-

rekin kezkatuta zeuden Aretxabaletako familiak, baina oso ondo daude umeak. Elikadurari dago-kionez ere, ez daukate inolako arazorik, denetik jaten dute eta gustura, batez ere fruta.

Orain Udaleku Irekietan dabilta herriko gainerako neska-mutikoeekin. Horrez gain, Arrasaten dauden sahararrek ere hainbat ekinga egingo dituzte uztailean zehar.



### Hasi dira herriko ume eta gaztetxoak Udaleku Irekietan

Astelehenean plazan elkartu ziren herriko 200 ume inguru Udaleku Irekiei hasiera emateko. Eguraldi eskasa tokatu zaie astean, baina horregatik haserretu barik eta aspertzeko aitzakia barik eskulanak eta jokoak egin dituzte lehenengo egun haue-tan. Oraindik beste aste bi dituzte irteerak egiteko, igerilekura joateko edo egun bereziak ospatzeko. /M.A.

*Okindegia - Gozotegia*

*Aretxabaleta*

Loramendi 6 • 943 77 17 19  
Basabe 2 • 943 77 00 81  
Aretxabaleta  
Bertako okina

ARQUERO  
CONSTRULAN S.L.

ERAIKUNTZA ETA INDUSKETAK

Tel.: 943 79 01 51  
Basabe poligonoa 4, EQ-11 • ARETXABALETA

Zuzendaria:  
**Lyonel Arquero**

Dekorazioa:  
**Soraya Arquero**

GARBITU S. KOOP

*Garbiketa  
orokorrak*

Errekabarren 3- Behea  
ARETXABALETA  
Tel: 943 79 01 28



ARTXIBOA

Urtero antolatzen du Aretxabaletako plataformak euskal presoen aldeko astea; aurten ere hainbat ekitaldi izango ditugu.

**ALDARRIKAPENA/** Hitzaldiak, bideo emanaldiak, kontzertua eta mendi ibilaldia izango dira

## Presoen aldeko astea egingo dute, plataformak antolatuta

M.A.

Azken urteotan urtero egin izan du EPEH Aretxabaletako plataformak presoen aldeko astea. Aurten, hilaren 12an hasi eta 18ra bitartean egingo dute, eta hainbat ekitaldi antolatu dituzte: hitzaldiak, Never Surrender taldearen kontzertua eta mendi ibilaldia tartean.

Euskal presoek Euskal Herrian behar dutela aldarrikatuko dute datorren astean gure herrian. Hainbat ekitaldi antolatu ditu Aretxabaletako plataformak, eta herritarren parte-hartzea gura dute.

### HITZALDIK ETA KONTZERTUA

Astelehenean emango diote hasiera Euskal Presoak Euskal Herri-ara Asteari. Ekitaldien berri emateko prentsaurrekoa egingo dute 18:30ean, udaletxe zaharrean; eta horren ostean, *Dispertsioari stop* leloa izango duen murala margotuko dute Durana kalean.

Martitzenean hitzaldia egingo dute udaletxe zaharrean, 18:30ean; *Amatasuna kartzelan* gaiaren gainean egingo du berba Larraitz Ugartek. Eguaztenerako, ostera, bideo emanaldia antolatu dute: *Eskubideak aldarrikatuz Europa* para bideoa emango dute Orly tabernan, 21:00etan.

Eguenean, Manu Azkarate Tolosako preso ohia hurreratuko da udaletxe zaharrera, 19:30ean. *Gaixotasun larriak espetxean* izango du berbagai, eta bere esperientziaren berri emango du. Egubakoitzean, uztaileak 16, kontzertua emango du Arrasateko Never

Surrender taldeak Ezkutu tabernan, 22:30ean hasita.

Asteko egunik handiena zapatua izango da, uztaileak 17. Ohitura bihurtu den mendi ibilaldia egingo dute lehenengo Kurtzebarri-ara Murruxio MEren eta Zaraia MTren laguntzarekin. Eguerdian bazkaria egongo da bertsolari-ek girotuta, eta arratsalde partean batukada eta kalejira trikitalariekin. Astea bukatzeko, *Bidasoako gidariak* hitzaldia egingo dute, domekan, Orly tabernan.

### BOST URTEKO IBILBIDEA

Aretxabaletako plataforma 1999ko apiril inguruan sortu zuten. Helburua zuen euskal presoek egoeraren berri emanez herritarrek sentibilizatzea eta atxikimendua lortzea. Presoen egoera salatu eta lehenbailehen aldatzeko egin gura zuten lan. Herriko 33 taldek eman zioten babesa orduan, baita talde politikoez ere. Bost urte hauetan gorabeherak izan ditu plataformak, baina inoiz ez da isildu.

*Eguenean Manu Azkarate Tolosako preso ohia hurreratuko da udaletxe zaharrera*



SUTAN

- TXIMINIAK
- EGUR-BARBAKOAK
- ESTALDURAK (Harri landuaren simulazioa poliuretanoan)



Mugitegi industrialdea, B bidea, 6

URRETXU

665 737 302

## LABUR

### Gorputz espresioa eta sentimenduak lantzeko jolas saioak antolatu dituzte datorren astean

Gozatu ekimena taldeak gorputz espresioa lantzeko jolas saioak antolatu ditu. *Atera barruan daukazun haurra* lelopean bi saio egingo ditu Auria Diharce gizarte hezitzaileak uztailearen 14an eta 28an, 18:00etatik 20:00etara. Eguraldi onarekin Ojala Zelaira joango dira eta txarrarekin Kurtzebarri eskolara. Izena emateko Azkena tabernara joan uztailearen 13a baino lehen.

### Udal langileen lan hitzarmena eztabaidatuko dute asteleheneko ohiko osoko bilkuran

Ohiko osoko bilkura egingo du udalbatzak astelehenean, uztaileak 12, 18:30ean. Hainbat gai eztabaidatuko dituzte tartean, udal langileen lan hitzarmena; 2b sektoreko, hau da, errekarren beste aldean etxeak egiteko hitzarmena; eta lanpostuen zerrendaren aldaketa udaltzain postu bat sartzeko.

### Hainbat film eskainiko ditu Kultura Sailak Herriko plazan datorren astean hasita

Kultura Sailak film emanaldiak antolatu ditu Herriko plazan ikusteko. Martitzen eta egubakoitzetan emango dituzte 22:30ean hasita. Datorren astean hasiko dituzte eta lehenengo filma *Buscando a Nemo* izango da, gazteleraz. Egubakoitzean, ostera, *Euskal Pilota, larrua harriaren kontra* emango dute euskaraz.

## TXUTXU-MUTXUA



### San Ferminetako entzierroak, gurean ere bai

Iruñean bakarrik ez, gurean ere behar bezala ospatzen dabil-tza San Fermin jaiak. Udaleku Irekietako ume eta gaztetxoek txupinazoa bota eta entzierroa egin zuten eguaztenean, eta Pausoka haur eskolako umeek jaiak iraun bitartean egingo dituzte entzierroak, hau da, uztailearen 14a bitartean. Batzuk pozik, beste batzuk negarrez, urduritasuna da nagusi Pausokako patioan egun hauetan goizeko hamarretan. /M.A.

JAR EZAZU  
HEMEN  
ZURE PUBLIZITATEA

Aretxagazeta

IGOR GUENETXEA/4X4 AUTOKO GIDARIA

## "Auto-krosetik 4x4 trial auto txapelketetara aurten pasatu naiz"

M.A.

A rkarazon bizi den Igor Guenetxeak irabazi zuen joan zen zapatuan Eskoriatzan egin zuten 4x4 trial txapelketa. Auto-krosean ibilitakoa da, baina 4x4 trialean aurten hasi da. Hasi eta irabazi, sari bat baino gehiago ditu-eta.

**Noiz hasi zinen 4x4 trial txapelketetan parte hartzen?**

Aurten, Eskoriatzakoa laugarren txapelketa izan zen.

**Eta zer moduz orain arte?**


Ondo, Noainen egin zuten txapelketan bigarren geratu nintzen eta Eskoriatzan lehenengo.

**Hala ere, auto kontuetan ez zara hasiberria?**

Ez, egia da. Lehen auto-krosean ibiltzen nintzen, baina antolatzailerik gero eta arazo gehiago dituzte eta dagoeneko oso gutxi egiten dira. Horregatik 4x4 trialera pasatzea erabaki nuen.

**Zein ezberdintasun dago bien artean?**

Auto-krosean abiadura da dena, zein iritsi lehenago, zeinek egin denbora hobea. 4x4 trialean, oster, teknika kontua da. Ozto-



ASTELEHENEKO GOIENKARIA

*"Gidariaren begiak dira kopilotuak eta eurek adierazten digutenaren arabera egiten dugu aurrera"*

poak gaintitu behar dira eta puntuazio bidez neurtzen da.

**Kopilotuarekin joaten zarete?**

Bai, baina alboan joan beharrean kanpotik gehiago laguntzen digu. Gidariaren begiak direla esango nuke, eta eurek adierazten digutenaren arabera egiten dugu aurrera. Nire kasuan, koadrilako laguna dut: Iñaki Elortza.

**Auto-krosak baino arrisku txikiagoa izango du, ez?**

Batzuek baietz diote, beste batzuek ezetz... Hemen ere joaten gara hankaz gora, baina autoa ondo gertatuta edukiz gero ez dago zertan izan istripu larririk.

**Zelakoa izan zen Eskoriatzako txapelketa?**

Oso ona. Parte-hartzaileok gustura geratu ginen ibilbidearekin eta eguraldiak ere asko lagundu zigun. Zaleei dagokienez, orain arteko txapelketa batean ere ez dut ikusi hainbeste jende. Oso giro polita egon zen, eta beste bat antolatzekotan geratu ziren.

**Aurrera begira zein asmo?**

Abuztuan Beran antolatuko dute txapelketa bat; ez dakit joango garen, opor garaia da-eta. Beste txapelketa batzuk ere badaude, baina oraindik ez dakigu datarik.

## FOTOKIROLA



### Eibartarra nagusi squash txapelketan

Joan zen astean jokatu zuten squash txapelketako finala. Udaleko Kirol Zerbitzuak antolatutako txapelketan hamar lagunek hartu zuten parte, tartean bi aretxabaletarrek: Iban Dasilvak eta Juan Antonio Varillak. Hala ere, ez bata ez bestea ez ziren sailkatu. Txapelduna Alberto Ferreiro eibartarra izan zen, eta txapeldunordea Garikoitz Ibarzabal oñatiarra. / M.A.

## FOTOKIROLA



### Jabier Etxebarriak saria jaso zuen

Jabier Etxebarriak Fito-k saria jaso zuen zapatuan Gipuzkoako Futbol Federazioaren eskutik. Futbol arduradun onenaren saria eman zion aretxabaletarrari Emilio Navas arbitroen lehendakariak. Urte askoan egindako lanaren fruitua izan zen zapatuko saria. Futbol Federazioak egindako batzarrean Jokin Antxia UDaren presidentea eta Jabier Mar oinarritzko futbolaren arduraduna izan ziren. /M.A.

FUTBOLA

### Astelehenean hasiko ditu preferenteak entrenamenduak

Datorren astelehenean, uztaileak 12, hasiko ditu Aretxabaleta Kirol Elkarteko futboleko preferente taldeak entrenamendu saioak. Entrenatzaile berria izango dute, gainera, aurtengo denboraldian agindua ematen: Nikasio Galan arrasatearra. Bigarren entrenatzailea, berriz, Xabier Zangitu bergararra izango da. Jokalariei dagokienez, aldatetako egon daitezke, eta ondorengo egunetan emango du horren berri UDako zuzendaritza batzorde berriak.

# URKULU

FERRETERIA • BRIKOLAJEA  
INDUSTRIA HORNIDURAKMitarte 23 / ARETXABALETA  
Tel.: 943 79 96 66 / Faxe: 943 77 10 33  
urkulu@cadena88.com

JAUSORO OSTATUA

Durana kalea 18 1.ESK  
ARETXABALETATel.: 943 79 89 69  
Sakelakoa: 656 74 81 61

Miren &amp; Zuriñe

Bitxitegia • Erloju denda

Bitxien diseinua

Bitxien konponketa

Otalora 4 (eliza aurrekaldean)  
Tel.: 943 77 13 57  
ARETXABALETA

# Iber

★ Loteria ★

✿ Paper denda ✿

✱ Liburuak ✱

Otalora 2.  
ARETXABALETA  
Tel.: 943 79 04 39

ERRETRATUZAHARRA

# Gerra aurretik Araotzera ibilaldia

**E**rretratu benetan zaharra da aste honetakoa. Gerra aurretik ateratakoa da, 1934. urte inguruan. Trinitate egunaren bueltan Araotzera ibilaldia egiteko ohitura zuten Aozaratza, Areantza eta Goroetako mutilek, eta hala egin zuten 1934an ere. Euretako batek farola bat du eskuan, eta, antza denez, birigarro kumeak eroan zituen bertan.

Lehenengo ilaran: Agustín Arrieta (Añabarta baserrikoa), Gregorio Okina (Garaiakua), Isidoro Uribebarria (Zuatzubizkar), Andrés Anduaga (Peruena) eta Rikardo Eraña (Otala).

Bigarren ilaran: Prudencio Lizarralde (Peruena), Jose Uribebarria (Ardantza), Simon Okina soinujolea

(Garaiakua), Jose Altuna (Zelaikua), Eugenio Zugasti (Aundikua), Nikolas Eraña (Otala), Lucio Madinabeitia Katxo eta Demetrio Zubia Azube (Bedoñabe).

Hirugarren ilaran: Jenaro Arenaza eta Alejandro Arenaza (Azpikua), Pablo Errasti (Sardan) eta Azuberen lagun ezezaguna.

Koadrila hartan soinujole bat baino gehiago zeuden. Onena Simon Okina Garaiakua baserrikoa zen, baina anaia Gregoriok denbora luzeagoan jotzeko ahalmena ei zuen. Diotenez, behin Goroetako errekan jotzen hasi eta Araotzeko elizara heldu arte ez zen isildu.

**Argazkia:** Zelaikua baserria  
**Informazioa:** Zelaikua baserria  
**Urtea:** 1934 ingurukoa



## NOLAALDATUDIRENGAUZAK

### Iturrigorri frontoiaren itxuraldaketa

**S**anta Kurtz kalean dagoen Iturrigorri frontoiak hainbat aldaketa izan ditu azken urteotan. Paretak margotu dizkiote, Udalaren armarrria jarri diote horman eta itxi egin dute. Ixtearekin batera jarlekuak egin dizkiote, ikusleek jarrita ikus ditzaten pilota partiduak, antzerkiak edo dena delakoak. Gainera, jolastoki bikaina dute umeek eguraldi txarra egiten duenerako.



≈ 1994 Teilatua zeukan Iturrigorri frontoiak, baina itxi barik zegoen. Pilota partiduak ikusteko jarlekuak ekarri beharra zegoen.



2004 Dagoeneko itxita dago frontoia, eta jarlekuak ditu. Eguraldi txarra egin arren gustura egin dezakete pilotan neska-mutikoek.

## IRIARTE

Umeen denda



Helduen lentzeria

Durana 8  
Tel.: 943 79 10 96  
ARETXABALETA

## Mobiliario ARENAZA

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07  
ARETXABALETA

## Martin

erloju-denda

Bere bezeroen zerbitzura

Mitarte 16  
Tel.: 943 79 01 72  
ARETXABALETA



Zenbaki

- Kontabilitatea
- Fiskalitatea
- Lana
- Juridikoa

## Aholkularitza

Basabe poligonoa F-O-10 (1. solairua) ARETXABALETA  
Tel.: 943 71 21 12 - Faxa: 943 71 22 68

# Ze barri?

U R L A T I K L A N D E T A R A

ESKORIATZA ETA LEINTZ GATZAGA / Egubakoitza / 2004ko uztailearen 9a / 173. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Mirari Altube • Durana 11 20550 ARETXABAETA • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54 • Posta elektronikoa: zebbarri@goiena.com • Lege gordailua: SS200/99

## Udaltzain eta bibliotekari-laguntzaile lanpostuetarako dei egin du Udalak

ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

Bi lanpostutarako deialdia egin berri du Eskoriatzako Udalak. Hala ere, oraindik ezin da izenik eman, deialdia Estatuko Buletin Ofizialean agertu arte, behintzat. Hala ere, zertan datzan azaldu dute, eta bete beharreko baldintzak ere finkatu dituzte dagoeneko.

Udalak bi lanpostutarako deialdia egin du. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean agertu dira, baina oraindik ez dute deialdia Estatuko Buletin Ofizialean argitaratu. Behin kaleratuta, 20 eguneko epea izango dute interesatuek lan eskera egiteko. Oposizio bidez aukeratu dituzte langile berriak.

### UDALTZAINA ETA BIBLIOTEKARIA

Batetik, Udalak udaltzain lanpostua aterako du lehiaketara. Haren eginbeharrak izango dira, besteak beste, Udaleko agintariak babestea, udal eraikinak eta bide publikoa zaintzea eta babestea, eta tauletan bandoak, oharrrak, deialdiak, eta abar jartzea.

Naziotasun espainiarra izatea ezinbestekoa da, eta 18 eta 32 urte bitartean edukitzea. Gutxieneko



Langile bakarra dago orain Eskoriatzako Bibliotekan; haren laguntzaile izateko deialdia egin du Udalak.

titulazioa, berriz, Eskola Graduatu titulua, lehen mailako Lanbide Heziketa edo baliokidea edukitzea. Gainera, BTP gidabaimenaren jabe izan beharko du.

Bestalde, bibliotekari-laguntzaile postua eskuratzeko, 18 urte beteta eduki beharko dute interesatuek; eta eskatzen duten gutxieneko titulazioa: bigarren

mailako Lanbide Heziketa, goi batxilergoa edo unibertsitatara sartzeko probak gainditu izana.

Informazio gehiago gura izanez gero, udaletxera jo daiteke.

*Udaltzain bakarra izatetik bira igaroko da Eskoriatza, deialdiari esker*

*Estatuko Buletin Ofizialean agertu, eta izena emateko hogei egun izango dute interesatuek*

*Euskaraz jakitea ezinbestekoa da bai udaltzain eta baita liburutegi-laguntzaile izateko*



### III. Kontzejupe pilota txapelketako saridunak

Hirugarren urtez, Aitzorrotz Kultura Elkartek lagunarteko III. Kontzejupe pilota txapelketa antolatu zuen, udal txeko arkupeko espezialistak bilduz. San Pedro egunean, berriz, Gatza-gainen afaria egin zuten. Gainera, Inkernu tabernan beste urte batzuetan jaiak iragarri dituzten kartelekin eta jaietako aspaldiko argazkiekin erakusketa antolatu dute. Udari begira, beste zenbait erakusketa, hitzaldi, eta abar antolatu gura dituzte kultura elkarteok.

### LABUR

#### Zabalik daude kanpoko eta barruko igerilekuak

Irailaren 13ra arte egongo da irekita Eskoriatzako kanpoko igerilekua. Aldi berean, barrukoa era zabalik izango dute eskoriatzarrek. Kanpoko igerilekuari dagokionez, astelehenean zapatuta bitartean 10:00etatik 20:00ak arte joan ahalko dira.

Barrukoari dagokionez, ordutegi desberdina izango du. Astelehenean egubakoitzera 09:00etatik 21:00etara; zapatuetan 10:00etatik 20:00etara; eta domeketan 09:30etik 14:30era egongo da irekita.



## TELEFONJAKINGARRIAK

ESKORIATZA	
Udaletxea	943 71 44 07
Udal bulegoak	943 71 45 32
Udaltzaingoa	943 71 44 07
Euskaltegia	943 79 21 68
Kultura etxea	943 71 46 88
Gizarte laguntzailea	943 71 31 36
Kirol etxea	943 71 53 28
Liburutegia	943 71 31 35
Luis Eceiza	943 71 53 56
Jose Arana Almen Ikastola	943 71 44 86
Almen	943 71 49 07
Museo Eskola	943 71 54 53
Axtroki	943 71 40 77
HUHEZI	943 71 41 57
Osakidetza	943 71 44 52
Telesko	943 71 49 17
Taxiak	943 71 40 59

BESTELAKOAK	
Eskualde ospitalea (Arrasate)	943 00 53 00
Gurutze Gorria (Bergara)	943 76 55 76
Ertzaintza (Arrasate)	943 79 71 99
Suhiltzaileak (Oñati)	943 79 28 00
Renfe (Zumarraga)	943 72 15 15
Renfe (Gasteiz)	945 23 20 30
PESA (Arrasate)	902 10 12 10
Larrialdiak (Arrasate)	943 77 10 43
SOS Deiak	112

## OHARRAK

### HERRIKO PLAZAN ZINEA

Aurten ere aire zabaleko zine emanaldia egingo dute uztailaren zehar. Astelehenean, eguazten eta egubakoitzetan eskainiko dituzte filmak, 22:15ean. Astelehenean hasi ziren, *Shin Chan* bihurriaren abenturekin.

Gaur, egubakoitza, *Pegado a ti* emango dute. Astelehenean, berriz, *El último samurai* eta eguaztenean, hilak 14, *Buscando a Nemo* pantailaratuko dute.

Eguraldi txarrak emanaldiren bat bertan behera utziko balu, hurrengo egunean eskainiko lukete filma (egubakoitzetakoa, domeketan).

### UDALETXEAREN ORDUTEGIA

Eskoriatzako udaletxeak udako ordutegia finkatu du. Goizez egingo dute lan, 08:00etatik 15:00etara. Hala ere, jendearentzako beste ordutegi bat dute, 10:00etan hasi eta 13:30ak arte. Eguenetan arratsaldez eskaini ohi duten zerbitzua bertan behera geratuko da uztailaren zehar.

## KIROLEAN OINARRITUTAKO IKASKETA BERRIEK LAU URTE IRAUNGO DUTE

# Bi titulazio berri eskainiko ditu HUHEZIK datorren ikasturtetik aurrera

Z.V.M.

**Ikasturte berrirako hitzarmena adostu zuten Mondragon Unibertsitateak eta Arizmendi ikastolak ekainaren 30ean.**

Eskoriatzako Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean egin zuten bilera Arizmendiko eta Mondragon Unibertsitateko ordezkariak. Ekainaren 30ean elkartu ziren, eta Edurne Erauskin eta Jose Antonio Mendikute izan ziren bi eskola horietako ordezkariak, hurrenez hurren.

Bilkura hartan, hitzarmena sinatu zuten. Datorren ikasturteari begira, bi titulazio berri eskaintzea adostu eta horren aurkezpena egin zuten. Batetik, Hezkuntza Fisikoan Irakaslea; eta Goi Mailako Teknikaria Jarduera Fisikoen eta Kirolaren Animazioan, bestetik.

Lehenengoari dagokionez, diplomatura izango da. Bigarrena, berriz, goi mailako heziketa zikloaren barruan koka daiteke. Biak lau urteko ikasketak izango dira, eta datorren urtean hasiko dira.

*Kirola geroz eta txertatuago dago herritarren eguneroko bizitzan*

### KIROLAREN GARRANTZIA

Eskoriatzako fakultatean emanago dituzten ikasketa berri horiek heziketa fisikoa dute oinarri. Batetik, kirolak gaurko gizartean duen hedapen handia hartu dute kontuan ikasketok antolatzeko orduan. Gizarteko adin eta eremu guztietara ari da hedatzen kirolaren ohitura, eta behar bezala irakasteko ikasketak eskainiko ditu HUHEZIK. Bestetik, osasun arazoaren prebentzioaz lotzen da kirola. Osasun, aisialdi eta ongizateaz ere lotzen da, eta heziketa fisikoarekin lotutako zerbitzu eskaera geroz eta handiagoa da. Eskaera asetzea lortu gura dute titulazio berriei.



JOXE ARANTZABAL

Arizmendik eta MUko ordezkariak sinatu zuten akordioa.

XIX. mende hasieran, kirola gizonentzat sortutakoa zela esaten zuten, eta neurtze borroka, lehia, nagusitasun eta botereari lotutako balioak gailentzen ziren.

Poliki-poliki gizarteko maila guztietan sartu eta biztanleen ohituretan txertatu da kirola; mundu osoko fenomeno bihurtu da eta balioak transmititzen ditu.

## 148 gazte aurtengo Udaleku Irekietan

Z.V.M.

**Eguaztenean hasi zituzten Eskoriatzako udalekuak. 10:00etan elkartu ziren, taldetan banatu eta San Fermin jaiei buruzko muralak egin zituzten gazteek.**

San Fermin egunean eman zioten hasiera Eskoriatzako aurtengo Udaleku Irekiei. Guztira 148 lagunek eman dute izena aurtan.

Luis Ezeiza Ikastetxeko jolas-tokian elkartu ziren 10:00etan. Izena eman dutenen artean hainbat talde egin eta adinkara banatu dituzte. Hala, guztira zortzi talde egin dira aurtan. Batzuek lehenengo aldiz hartzen dute parte;



Z.V.M.

Jolasteko gogoz zeuden udalekuetakoa.

beste batzuek esperientzia dute udalekuetan. Eguaztenean, baina, gurasoek lagunduta joan ziren

gehienak hitzordura. Haiekin berba egin eta lagunekin egotera eta jolastera joaten direla esan digute. Hala ere, elkar ezagutzera izan zen gaztetxoaren eguneko lehen zeregina. Horretarako, bakoitzaren begirale eta taldekideekin elkartu eta San Ferminekin lotutako horma-irudiak egin zituzten.

Goizean egindako muralak herriko kaleetan ipini eta arratsaldean entzierroa egin zuten; lehenengo San Fermin abestuz.

Izena ematera animatu diren 148 lagunak 21 begiraleren ardurapean egongo dira udalekuek irauten duten bi asteetan. Askotariko ekintzak egingo dituzte hamabost egun hauetan: mendira irteerak, igerilekura...

## LABUR

### Zuzendaritza batzorde berria du Amuskak

Amuskak zuzendaritza batzorde berria aurkeztu zuen ekainaren amaieran. Eskoriatzako Emakumeen Elkarteak batzar orokorra egin zuen, eta gai zerrendako puntu guztiak onartu zituzten bertan. Bestalde, batzordekide berriak aukeratu dituzte. Horiek Agapi Morales, Maria Asun Arzaburu, Marian Aranburuzabala eta Mari Carmen Pagaldai dira. Hala, bederatzi kidek osatzen dute Amuskaren batzordea; aurretik zeuden hiru lagunek utzi egin dute kargua.



## MIRENTXU TABERNA

Kafe goxoa hartzeko  
Tel.: 943 71 41 67



## bedardenda

Tel.: 943 71 43 27  
ESKORIATZA

## Txalaparta taberna



Aranburuzabala 25  
ESKORIATZA

# Ze barri?

Izan zaitetz zeu ere berriemaile!

Zure taldearen, auzoaren, elkartearen...  
gaineko informazioa emateko, deitu gurera!

943 79 86 21

# Herriko 19 gaztetzok hartuko dute parte udalekuetan, bi begiraleren ardurapean

Z.V.M.

Gatzagan astelehenean hasiko dituzte aurtengo udalekuak. Bi astetan zehar arratsaldero elkartuko dira, begiraleek prestatutako ekintzetan parte hartzeko. Herrian bertan arituko dira, baina kanpora ere egingo dute irteeraren bat. Kanpaldia ere egingo dute.

Astelehenean, uztailak 12, arratsaldean emango diete Leintz Gatzagako gaztetzoei hasiera aurtengo udalekuei. Bi astetan zehar arratsaldero elkartuko dira, askotariko ekintzak aurrera eramateko.

Hemeretzi lagunek hartuko dute parte aurten beraiantzat antolatutako ekimenetan. Bi begirale izango dituzte: Ainara Olabarrieta eta Balen Valor.

## BEGIRALE BIZKAITARRAK

Ainara urria ezker ari da Gatzagan lanean. Izan ere, bertako ludotekako arduraduna da orduetik hona. Eskoriatzan Irakasle Ikasketak egin dituen lezamar gaztea da, eta dagoeneko ezagutzen ditu udalekuetan parte hartuko duten gatzagar gehienak.

Aurten 19 lagun izango dituzte Ainarak eta Balenek euren ardurapean, iaz baino lau pertsona gehiago. "Eurekin jolastea da nire lanetik gehien atsegin dudana", aitortu digu Ainarak. Egutero lau orduz egongo dira denak elkarrekin ekintzetan parte hartzen.

Denbora tarte horretan, besteak beste, herri-kirol, ur-jolas eta

karaokean parte hartzeko aukera izango dute herriko gaztetzoei.

## LAGUNEKIN JOLASEAN

Ainarak esan duen bezala, Gatzaga aukera asko eskaintzen dituen herria da. "Antolatu ditugun ekintzak herrian bertan egin daitezke, edo Dorletara joan gaitzek horiek egitera, esaterako. Gainera, autoa hartzeko beharrik ere ez dago Gatzagan". Eguraldia ere kontuan hartuko dute eguneko ekintzak aurrera eramateko. "Eurria eginez gero, ludotekan bertan edo pilotalekuan bertan egingo ditugu jolasak", adierazi du Ainarak.

Hala ere, dena ez dute Gatzagan egingo. Herritik kanpora joateko asmoa ere badutela adierazi digu begirale bizkaitarrak. "Eguraldia aldeko izanda, Eskoriatza eta Gamarrako igerilekuetara joatea erabaki dugu. Izan ere, herrian horren hutsunea izanik kanpora joan behar dugu bainua hartzera".

Arratsaldero elkartuko dira gatzagar gazteak, 16:00etatik 19:00etara; azken eguna uztailaren 23a izango da. Hilaren 17an, berriz, guraso eta seme-alabek, guztiek batera egingo dute lo Dorletan. Bertan kanpatuko dute, eta lagun giroan afaldu, ipuinak kontatu edo abesteko aprobetxatuko dute gaua.

Uztailaren 20an aldiz, arratsaldeko 7etan elkartuko dira, eta Gatzainuzketako etxeetan afaldu eta egingo dute lo.

Bestalde, datorren astelehenean, hilak 12, GURELek beste biler bat egingo duela iragarri du.



ARTXIBOA

*Udalekuetan, herri-kirolak, ur-jolasak eta karaokean arituko dira, besteak beste*

*Arratsaldero hiru orduz elkartuko, eta Gatzagan bertan jolastu edo irteerak egingo dituzte*

*Eguraldi txarrarekin, ludotekan edo pilotalekuan jolastuk dute*

## ERMITAN MEZA ENTZUN OSTEAN KANPOAN LUNTXA ZUTEN ZAIN

# Giro polita egon zen San Martin ermita inguruan

Z.V.M.

Uztailaren 4an, domeka, ospatu zuten gatzagarrek San Martin eguna. Horretarako Goierrri auzora joan ziren, bertako ermitan meza entzun, eta zerbait jatera. Eguraldia lagun izan zuten bertaratutakoek; hala ere, beste urteetan baino jende gutxiago egon zen.

Domekan ospatu zuten gatzagarrek San Martin eguna. Horretarako, izen bereko ermitara joan ziren, Goierrri auzora. Eguraldi bikaina egin zien domekan, eta ermitaraino gerturatu zirenek paisaiatz gozatzeko aukera paregabea izan zuten.

Etxafuegoak bota zituzten 12:00etan egunari hasiera emateko. Ordu erdi geroago hasi ziren

meza esaten. Bitartean, baina, beroari aurre egiteko, bertaratutako gehienak ermitan sartu ziren, freskotasun bila.

Meza esan bitartean, antolatzailleak kanpoan jarritako mahaiari azken ukituak ematen aritu ziren. Izan ere, elizkizuna amaitzerako, patata tortilak, txorizoa, kroketak... jateko prest zeuden eurei esker. Edaririk ere ez zen falta izan. Eguraldi beroa-

ri aurre egiteko, ardoa eta freskagarriak hartu zituzten. Gazte eta heldu, denak batera ibili ziren.

## IAZ BAINO JENDE GUTXIAGO

Jende askoren ustez, domekan San Martin ermitara gerturatutako jende kopurua aurreko urte-etakoa baino txikiagoa izan zen. Denak bat etorri ziren eguraldiari errua botata. Jon Sasiain ere hori uste berekoa da: "Oso eguraldi ona egin du, eta horrek jendea kanpora joatera animatu du".

Euskal musikaz lagunduta luntxa hartu zuten. Behin sabela beteta, dokean jolastea zuten pentsatua antolatzailleek. Baina jende gutxi animatu zenez, azkenean ez zuten horrelakorik egin. Datorren urtean aurreko urteetan bezala, jende gehiago gerturatzea espero dutela adierazi du Jon Sasiainek.



Eguzkipean mokadutxoa jateko aprobetxatu zuten bertaratutakoek.

Z.V.M.

*Eguraldia lagun, jende asko kanpora joan da, eta ez da San Martin ospatzera etorri*



SAIO BEREZIA GOIENA TELEBISTAN

# Tourra 2004

TOURRA 2004  
Saio berezia

Uztailaren 19an, astelehena,  
20:30ean



Goiena Telebista

**Ikustekoa!**

TOURRA 2004  
Babeslea:



MUEBLES FERNANDEZ

Aretxabaleta eta Eskoriatzako

# Gremioen Gida



**DEKORAZIO PINTURA  
PINTURA INDUSTRIALA  
FATXADAK**

Tel.eta Faxe: 943 71 41 82 Poltsikokoa: 639 37 45 25




**J.SANCHEZ  
ITURGINTZA**

- Bainurako gaiak
- Etxe barruko gas instalazioak
- Bainurako altzariak

Basabe poligonoa A - 2 - 10  
ARETXABALETAK  
Tel.eta faxe: 943 79 69 32 Poltsikokoa: 689 58 79 12

**Dintura eta dekorazioa**



**San Migel 13, behea C  
ARETXABALETAK  
609 143 119**



**RADIO  
ELECTRICIDAD  
LEGAZPIA**

**"R.E.L.E."**  
Gotzon Beitia Lazkano

**Denda:**  
Santa Ana 17, Eskoriatza  
Tfnoa-Faxe: 943 71 41 65

**Tailerra:**  
Santa Ana 12, Eskoriatza  
Tfnoa-Faxe: 943 71 41 12


**ESKORIATZA**

**AITZORROTZ  
elektronika**

- Telebista, audio eta bideo salmenta eta konponketa
- Instalazio elektrikoak
- Atezain automatikoak
- Antena kolektiboak
- Informatika

**Aitzorrotz elektronika Tel.: 943 79 16 10  
Otalora, 14 ARETXABALETAK**

**Hnos. SAJERAS, C.B.**



**Margogintza  
Dekorativo eta Industrial**

San Pedro, 14 behea ESKORIATZA  
Tel.-Faxe: 943 71 47 28  
Arrasate Tel.: 943 77 16 66  
Poltsikokoa: 608 92 11 18

**FRIXI** Eraikuntzak

Hormigoizko estruktura,  
urbanizazio, kontrata  
eta enpresen mantenimenduak

Aranburuzabala 56 ESKORIATZA  
Tel. eta faxe: 943 71 55 15 Poltsikokoa: 629 51 39 22



*Jon Axpe Oyanguren*

**OYANGUREN  
Iturgintza**

Aranburuzabala 15  
ESKORIATZA  
Tel.: 943 71 47 14  
606 007 369  
f.oyanguren@ctv.es

- Iturgintza •
- Gas •
- Berogailuak •
- Peetrolio-produktuak •
- limatizazioa •

**L. GONZALEZ**

**PINTURAK**

**Pintura orokorra eta enpapelatua**

Basabe poligonoa F-6  
ARETXABALETAK  
686 113 581

**ARETXARGI**

Modesto ROMEO  
Aretxargi@euskalnet.net

BELOORRIETA 15, BEHEA 20550 ARETXABALETAK - GIPUZKOA

943 532 628 645 734 032

**INSTALAKUNTZA ELEKTRIKOAK**



**Instalazioen mantenimendu osoa  
Berokuntza • Gas  
Aire girotua • Haizeztatzea**

Basabe industrialdea B-3. Aretxabaleta.  
Tel.: 943 77 19 88. Faxe: 943 79 59 97



**ALUMINIOA/P.V.C./POLIURETANO  
ALUMINIOA-EGURRA  
PERTSIANAK ETA OSAGAIK**



Araba ibilbidea, 17 eta 25  
\*Tel.: 943 79 28 41 \*Fax: 943 79 79 06  
\*20550 Aretxabaleta (Gipuzkoa)  
\*E-mail: kurtzebarriehiak@euskalnet.net



Basabe poligonoa D-2-1  
117 posta kutxa  
ARETXABALETAK  
Telefona eta faxe:  
943 79 78 45  
Poltsikokoa:  
616 96 57 98

- Barruko zein kanpoko lorezaintza.
- Ureztatze sistemak: automatikoki, eskuz eta tanta-jario bidez.
- Loreontzi-euskarriak, balkonerak, eta abar.

**ARETXABALETAK  
ITURGINTZA**

Durana, 16-Tel.: 79 17 53  
ARETXABALETAK

**J.J. ITURGINTZA  
IRURE**

**URA  
GASA  
KALEFAKZIOA**



**MITARTE 15  
ARETXABALETAK**

943 793 187